

Aretxagazeta



ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA
**Santa Ageda
mutilak /8**

GIZARTEA
**ESOPari buruzko
jardunaldiak /9**

LEINTZ GATZAGA
**Txerri guztiei
San Martin eguna /10**

ARATUSTEAK
Mozorroitu
eta kalera!

GUARDIAKO FARMAZIA

ZAPATUA, 9
ITURRALDE, Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 10
ITURRALDE, Mitarte 18..... 943 79 27 22

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen 943 71 49 07

ARETXAGAZETA 943 79 86 21

Faxa 943 77 18 54

Basotox 943 77 09 81

Euskaltegia 943 79 21 68

Gizarte laguntzailea 943 71 18 62

Hezibide elkarte 943 79 31 32

Industrialdea 943 79 62 80

Instituta 943 79 79 00

Kirol etxea 943 71 26 28

Kultura etxea 943 71 10 27

Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49

Kurtzebarri_BHI 943 79 57 40

Liburutegia 943 71 18 62

Loramendi EE 943 77 09 70

Ludoteka 943 79 05 81

Mankomunitatea 943 79 30 90

Murruxiko ME 943 79 93 74

Musika Eskola 943 79 36 50

Osasun etxea 943 79 74 58

Otalora 943 71 24 06

Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42

Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77

Postetxea 943 79 28 31

Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00

Saretxo 943 71 26 56

Taxi geltokia 943 79 22 33

Udal Bulegoak 943 71 18 62

Udaltzaingoa 943 71 18 63

Urats Gain 943 79 99 11

UDALTZAINGOA

Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIAK

SOS Delak 112

Eskualde Ospitalea 943 03 53 00

Ertzaintza 943 79 71 99

Gurutze Gorria 943 76 55 76

Larrialdia 943 46 11 11

Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA

Domeketan: 11:00, 12:00

Zapatuetan: 19:30

Lanegunetan: 19:00

SANTA RITA

Domeketan: 09:00

Zapatuetan: 18:30

Lanegunetan: 08:00

BASERRI AUZOETAN AZATZA

Domekan: 12:00

Otsailaren 10ean, On Juan Maria Uriarte gotzainak bederatzi auzoentzat esango du meza Azatzako elizatean. Gainontzeko auzotar guztiak gonbidatuta daude.

OHARRAK

ARATUSTEAK

Domeka goizean, 10:00etan txistulariekin diana egin ondoren, koadrilen desfilea hasiko da. 12:30ean, Txino Dantza egingo da eta 13:00etan, Leizarra Musika Eskolak batukada kontzertua eskainiko du. Arratsaldean, 18:00etan, euskal presoan aldeko kalejira egingo da. Azkenik, 19:30ean, aurtengo mozorro lehiaketako sariak banatuko dira. Martitzenean, berriz, arratsaldean hasiko da festa, txaranga-aren etorrerarekin. 17:00etan, bonba japoniarrak jaurtiko dira, eta 18:00etan, erromeria egingo da. Azkenik, afaria, eta 22:30ean, txinoaren hileta egingo da.

BIDEO EMANALDIA, HITZALDIA ETA MAHAI INGURUA

Kolonbiako San Clemente herriko abeltzaintza eskolaren errealitatearen gainean bideo emanaldia, hitzaldia eta mahai ingurua egingo dira otsailaren 11n, arratsaldeko zazpitan. Murruxiko lokalean. Hizlaria Andoni Uribetxebarria izango da.

ESKI IRTEERA

Murruxiko otsailaren 23rako eta 24rako eski irteera antolatu du, Luz Ardiden-era. Izenematea Murruxiko lokalean, martitzenetan 19:00etan.

LORAMENDIREN AGENDA

DEBAGUNEKO EGUTEGIA SALGAI LORAMENDIN

Loramendi Euskara Elkar- teak salgai jarri du De- bagunek, urtero, argazki zaharrekin osatuta egiten duen egutegia. Bat edo gehiago eskuratu gura duenak jo dezala Durana kalean Loramendik duen egoitzara, arratsaldeko lauretatik zortzietara. Egutegiak 2,40 euroren truke daude salgai (400 pezeta).

ORAIN DELA 10 URTE ARETXABALETAN

Azkeneko agurra Arbizelaiko baserriari


Otsailaren 8an bota zuten Aretxabaletatik Arrasatera bidean zegoen Arbizelai baserria. Aretxabaletako Udalak herri inguruak txukuntzeko proiektua egin zuen eta, dirudienez, baserri hark ez zuen lekurik plangintza hartan. Izan ere, Arbizelai hondar egoeran zegoen aspalditik.



BERTAKO BERBAK / Xxxxxxegilea

"Marraskala"


Argala, ziztrina.
-Ondo marraskala dago andra koittaua.



ZORIONAGURRAK



ESKORIATZA
Mikel Beloki Lezeta
5ean, 7 urte. Gurasoen eta Unairen partetik, muxu handi bat.




ARETXABALETA
Ekain Agirre
6an. Zorionak, etxeko guztien partetik, eta ondo pasau karnabalak!



ESKORIATZA
Eukene Molina
10ean. Zorionak eta urte askotarako zure lagunaren partetik.




ARETXABALETA
Luisa Quintero
11n. Zorionak, urte askotarako eta muxu handi bat, amama!



ESKORIATZA
Sonia Alainez
12an. Zorionak eta askotarako lagunaren partetik.



ARETXABALETA
Kepa Urra
13an. Zorionak eta besarkada bat ARETXAGAZETAko langileen partetik.



ARETXABALETA
Jon Ugarte
14an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztien partetik.

BABESLEA

Zorionak denoi !!

Foto

Urkiola

Argazkidenda

HERRIKO PLAZA 5
20550 ARETXABALETA
TELEF 943 79 39 20

* ESTUDIOAK
* EZKONTZAK
* JAUNARTZEAK
* ENMARKAZIOAK
* DIGITAL LANAK
* KAMARAK

Beti karretean edo albuma dohanik

Kalitate goreneko estalketa elektrolitikoak

MIRVAT. Elkarte kooperatibo mugatua
Aingeru ibiltokia 41
ESKORIATZA
943 71 45 06 Faxa: 943 71 50 05




MIRVAT

ATREBENTZIAEZPADA/ Karnabaletan disfrazetako asmorik badauketzu? Zertaz disfrazauko zara?




AZAHARA ROMERO
11 urte



ANDER ANTIXIA
4 urte



MAIALEN MARTÍNEZ
7 urte



ANDER LARRAÑAGA
10 urte



JONE ETA ANE
7 urte



ALEX ARRIBAS
4 urte

Bai, lagunekin disfrazauko naz. Domekan, hippy jantziko gare, eta martizenien, barriz, futbolista. Urtero disfrazetan naz, baiñe ondiokan ez dot sekule sari-rik jaso.

Bai. Indixo jantziko gare, aitte, ama, Miren, Matilde, Jon eta izeba. Osaba Imanol bakerue izengo da eta zaldi gainien urtengo dau. Neu be ibilliko naz zaldi gainien.

Bai. Domekan, sorgin jantziko naz, eta martizenien, ostera, eskolan disfrazauko gare; eta Mielotxinen jantzixe daukogu. Urtero jantzen naz eta oso ondo pase-tan dot Karnabaletan.

Bai. Neu bakarrik disfrazauko naz, baiñe ondiokan ez dot pentsau zertaz. Zeo-zer egingo dot azkenengo orduen, neuk preparentan dot-eta; martitzenien, barriz, lagunekin jantziko naz.

Bai. Domekan, indixo jantziko gare bixok, baiñe ez batera, bakotxa bere kuadrilliekin; martitzenien, barriz, gure gelakuok Txuntxurrunen jantzixekin disfrazauko gare.

Bai. Borono jantziko naz domekan eta nire arrebie Leire kaxerita. Martitzen-erako beste jantzi bat dauket, Miki xaguena. Belarriek jarriko dittut buruen eta buztena be bai.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK **LORATEGIAK TXUKUNTZEN** Hilabete eta erdi falta da udaberrirako, baina Makaiko lorazainak, eguraldi ona aprobetxatuz-edo, lorategiak txukuntzen dabilta. Belarra moztu, lurra gehitu, lore berriak landatu... Dotore jarri behar dizkigute herriko lorategi eta bazterrak. Izan ere, horixe da haien lana. Gainerako herri-tarrona, berriz, errespetatzea. Ea zenbat irauten duten... /M.A.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN / 4

Lapurreta txatartegian

Domekan, lau lagun atxilotu zituen Ertzaintzak, Otxoa txatartegian lapurtzeagatik.

ASTEAN BEHIN / 5

Aratusteetako egitaraua

Urteroko egitaraua kaleratu du Udaleko Kultura Sailak aratuste domekarako eta martitzeneko.

KIROLAK / 6

Xake denboraldiaren bukaera

Xake taldeak mailaz jaitsita esango dio agur Euskal Ligan egin duen denboraldiari.

ASTEKODATUA

10

SARI BANATUKO DIRA MOZORRO LEHIAKETAN

Aratuste-domekan, urtero moduan, mozorro lehiaketa egingo da. Hamar sari banatuko ditu Kultura Sailak: bost sari 16 urte-tik beherakoan artean eta beste bost 16 urtetik gorakoan artean.

BESTEKEESANA

“Azken aldian lotura dut laneko gai, lotzen duena. Aldatu dudana, lan egiteko era da. Lehen zuhaitzetako loturak lantzen nituen, orain ostera, pertsonok ditugun loturak lantzen ari naiz. Harrituta nago batzuetan zein leunak diren loturak, baina era berean zein indartsuak diren ikusita, edozeri eusteko zelako indarra daukaten ikusita. Eta hori, guztiei aplika dakieke, gizakiari, naturari, guztiari. Musikari batek, pentsamendua notetan bihurtzen du, eskultore batek poesia bateko emozioa forma bitartez adierazten du. Ia sorkuntza lan guztietan, lehenengo notaren ostean, melodiak berez datoz. Nire kasuan lehenengo irudiak besteie egiten die dei. Irudiak ia berez egiten direla esan daiteke.

KEPA AKIXO
GARA/02-01-25

HERRITARRENBERBAK/ Aitor Agiriano



Ieup!

herrerako noranzkoan, norbait datorren seinale, ● ● ● hauts bolada handi bat suma daiteke oldarkor; gero eta gertuago, are puztuago... estatubatuarra ote? ...ez! Sa, Sa... galbidea dator! ...sar bitez umeak etxeetan! Guztiok ezkutura! Itxi leihoak eta giltzatu ateak! Non dira legegezkoak? Gainean ditugu eta... Santa Ageda mutilaaaaak!!
Etorri dira berriro ere Santa Ageda mutilak, bai. Aurten baina, gainontzeko urteetan ez bezala, guztiok dugu gogoan, oraintsu udalak kaleratutako idazkia, non, besteak beste, Santa Ageda mutilen bandalismoa salatzen zen. Niri, alkatearen gutuna baino, *Oesteko* filma datorkit burura; izan ere, Santa Ageda mutilak txapela buruan eta suziriak eskuan dituztela, *cowboyak* bailiran, herriaren jabe egiten baitira. Gogoa eta sasoi erruz; oro zaie zilegi, debekurik, alerik ez. Parean

dagoena... behera!
Soinuz lagundutako kanta eta dantzek egunerokotasuna hausten dute. Urtez urteko ohiturari eutsiz, herria plazan biltzen da, pozez eta algaraka, gazteek noiz dantza egingo, artega. Hurrengo egunean ordea, zenbaiten poza tristura bihurtzen da, eta algara, gorroto. Biharamun gozoa ekarri behar lukeenak, gazia dakar; mutilon dantza eta jauziak hizpide izan beharrean, gaueko zarata eta txikizioak bolo-bolo. Tradizioa zena festa soil bilakatu da: eguneko "betelana" besterik ez da, gaua baita jai-giroaren meka. Onerako ala okerre-rako... hori norberak juzka beza.
Argi! Ez dut esan nahi ospakizun hau kendu behar denik; ezta gutxiago ere; polita baita gaztea herriko enparantzan dantzan ikustea! Dena den, herritarren kezak areagotu direla medio, hor dago udalaren hordagoa.
Eutsi nahi dionik bai?

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Goio Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martín

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
4.100 ale

Goiena
Kommunikazio Zerbitzuak

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilartzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaleko
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



M. J. Aretxaga

Mozorro koktela

Itxura hori izango dute herriko kaleek domekan. Kolorez beteko dira bazterrak. Gaurko kontatzeko ditudanak labur kontatuko ditut, leku gutxi utzi didate eta. Harrituta nago **Santa Ageda mutilak** zein zintzo ibili diren ikusita. Bejondeiela! Sorginen Laratza saiotik ere etorri omen ziren eurekin egoteko. Laster Hollywoodera...

Herritik Bilbo aldera egingo dut salto. Herritar batek erakusketa jarri du han. **Kepa Akixo** da bera. Miarrizten bizi bada ere aretxabaletarra da eta zurezko irudiak jarri ditu ikusgai. Kanpotik gurera etorri dena bestalde, **Juan Maria Uriarte** gotzaina da. Astean zehar gurean izan da, eta gaixoak, pastoralgileak eta auzotarrak bisitatu ditu besteak beste.

Kontu hauen ostean, domeka arte agur. Ah! eta ezagutzen nauenari hamar puztarri.

Lau lagun atxilotu zituzten txatarregian lapurtzeagatik

MIRARI ALTUBE

Pasa den domeka arratsaldean lapurrak ibili ziren Aretxabale-tako Otxoa txatarregian. Ertzaintzak adin ezberdinetako lau lagun atxilotu zituen 350 kilo kobrezko tutu malgu zeramatatela furgonetan.

Joan zen domeka arratsaldean, Aretxabale-tako preferenteko taldea partidua jokatzeko ari zen bitartean, lapurrak sartu ziren futbol zelai alboan dagoen Otxoa txatarregian. Partidua ikusten zegoen Martin Garai udaltzainburuak, jaiegunean txatarregian ezezagunak zebiltzala ikusita, Ertzaintzari deitu zion.

HIRU EMAKUME ETA GIZON BAT

Arratsaldeko seiak laurden gutxi inguruan, Ertzaintzak Bilboko

matrikula zuen furgoneta atzeman zuen GI-627 errepidean. Lau lagun zihoazen bertan, hiru emakumezko eta gizonezko bat. Furgonetaren atzeko aldean bestalde, luzera ezberdinetako kobrezko tutu malgu ugari zeramatatzen, 350 kilo hain zuzen. Ertzaintzak Aretxabale-tako Otxoa txatarregiko kobrea zela baieztatu ostean, lau lagunak atxilotu egin zituzten lantegian lapurretan aritzeagatik.

AURRETIK LAPURRETAN EGINDAKOAK

Lau atxilotuak bizkaitarrak dira, eta aurretik ere hainbat enpresa eta lantegitan lapurretan egindakoak dira. Sestaoko 51 urteko C.J.P. eta 27 urteko D.J.J., Gamiz-Fikan bizi den 21 urteko E.P.J. eta Bilboko 43 urteko A.J.J., libre utzi zituzten Bergarako Epaitegitik deitu bitartean.



AMAGOA LASAGABASTER

Kobrezko tutu malguak lapurtu gura izan zituzten Otxoa txatarregian.

TXUTXUMUTXUA



Zapatuko eukaristiarekin agur gotzainari

Martitzenean etorri zen herrira On Juan Maria Uriarte Donostiako elizbarrutiko gotzaina eta bost egunetan zehar hara eta hona ibili da. Gaixoak, katekesiko gurasoak, auzotarrak... denekin egon gura izan du. Zapatu goizean bestalde, Agustindar elkartearrekin eta auzotako parrokiatako arduradunekin du hitzordua. Arratsaldean, pastoralgileekin elkartzeko da eta bukatzeko meza esango du parrokian. Domekan ere oraindik hemen izango da eta auzotarrentzat meza esango du Azatzan. /M.A.

LABUR

Aurten ere Aberri Egun bateratua ospatzeko lehenengo batzarra egingo da zapatuan

Azken bi urteetan Aberri Egun bateratua ospatu izan da Aretxabale-tan eta aurten ere halaxe egin gura da. Herriko talde txiki biltzen da prestaketa lanak burutzeko eta zapatuan, hilak 9, egingo dute aurtengo lehenengo batzarra udaletxe zaharrean. Ideologia ezberdinen ginetik, jai giroan eta lagun artean, aretxabaletar eta euskal herritar bezala ospatu nahi dute jaiak. Hori dela eta ekintzak antolatzen eta ideia berriak proposatzen lagundu gure duen guztiari egiten zaio dei zapatuko batzarrean parte hartu dezaten.

BEIRALAN KRISTALDEGIA



- Komunerako altzari eta manparak
- Horma armairuak
- Beirate artistikoak
- Salarako mahaia
- Beirate "fusing"ean kalitate handia

Herriko plaza, 8 behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 09 97 274

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28



MEMESA

Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11 / Fax: 943 71 21 19
ARETXABALETA

BASABE

jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel.: 943 79 91 84
Aretxabaleta



**Eskoriatzan salgai
partzelak eta
etxebizitza adosatua**

*Promotoreak baimendutako
agenzia bakarra*

**Udaltx
Inmobiliaria**

Tel.: 943 79 59 99
Faxa: 943 79 92 00
Maalako Errabala, 27 behea-ekz.
ARRASATE

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

REGI

optika

Loramendi, 10
Aretxabaleta
Tel. 943 79 98 21

IBARRA
estankoa



PRENTSA ETA
IKASMATERIALA

Egunero zabalik
Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77
ARETXABALETA

KULTURA / Martitzenean ere egongo da zer ospatua, besteak beste Txinoaren hileta

Domeka izango da Aratusteetako egun nagusia

MIRARI ALTUBE

Pailazo, sorgin, deabrutxo edo ijito, ez dadila behintzat domekan inor mozarrotu barik geratu. Ume eta nagusi, gero eta ohitura handiagoa dago gurean mozarroa jantzi eta kalera ateratzeko. Izan ere, Aratuste domekari itxura eman egin beharko diogu, ezta?

Udaleko Kultura Sailak Aratusteetarako egitaraua orain aste-bete inguru kaleratu zuen. Ez dago berrikuntza handirik, betikoa errepikatzen dela esan dezakegu, izan ere, Aratusteetan giroa jarri behar duena norbera da.

URTEZ URTE GORA

Nahiko jai berria da gurean egiten dena. Francoren garaia baino lehen zerbait egiten zela gogoran dute herriko nagusiek, etxeko arropa zaharrak jantzita jolasean ibili, besterik ez. Francoren garaian, debekatuta egon zen inolako ospakizunak egitea, eta lehen egiten zen apurra ere galdu egin zen. Beraz, ez dauka urtetako tradizioz, Tolosakoek ez bezala, baina urtetik urtera jende gehiago animatzen da gurean ere mozarrotzera, eta horrek giro bikaina ematen dio Aratuste domekari.

ARATUSTE DOMEKA EGUN NAGUSIA

Domeka da Aratusteetako egun nagusia Aretxabaletan. Txistulariek emango diote ongietorria

Eguerdiko 12:00 inguruan hasiko dira koadrilak kalean gora eta behera

Leizarra musika eskolako perkusio taldeak batukada eskainiko du domeka goizean

Iaz bezala aurten ere herri afaria antolatu da. Ostean Txinoari agur esango diote

egunari, eta eguerdiko 12:00 inguruan hasiko dira koadrilak kalean gora eta behera, mozarroak erakusten eta mozarroei bizia ematen. Irudimenari makina bat buelta emango zion batek baino gehiagok, izan ere urtetik urtera


mozarro dotoreagoak eta xelebreagoak agertzen dira kalean. 12:30ean Txino dantza egingo dute Durana kalean, eta 13:00etan Leizarra Musika eskolako perkusio taldeak batukada eskainiko du.

Arratsaldeko 18:00etan Euskal Presoak Euskal Herrira Aretxabaletako plataformak antolatuta, Kalebarren eta Akelarre txarangekin girotutako manifestazioa egingo da. Ostean, Udaleko egitarauan agertu ez arren, Santa Ageda mutilek urtero bezala dantzan egingo dute plazan. 19:30 aldera, bestalde, mozarro lehiaketako sariak banatuko dituzte. Gauean, Akelarre txarangak jarraituko du bazterrek alaitzen.

MARTITZENEAN ERE BAI

Martitzenean eskoletan ospatzen dituzte Aratusteak. Arratsaldean, hala ere, egongo da zer ikusia kalean ere: txaranga, japoniar bonbak, buruhandiak, eta Tal-mah taldearekin berbena Mitarte kalean arratsaldeko 18:00etik aurrera. Iaz bezala, aurten ere herri afaria antolatu dute. Tabernaberrin egingo dute, eta txartelak aurrez hartu behar dira Tabernaberrin bertan edo Arlutzan. Eguna eta aurtengo Aratusteak bukatzeko, 22:30ean Txinoaren hileta egingo dute. Mitarte kaletik irten eta Herriko plazaraino eramango dute hilkutxa, eta plazan erre egingo dute. Txinoari agur esateko lutoz jantzita eta kandelak eskuan hartuta joatea eskatzen dute.

TXUTXUMUTXUA



Santa Ageda mutilak pozik eta zintzo

Santa Ageda eguna pasatu da eta Santa Ageda mutilak emandako berba eusten saiatu dira. Ondo pasatzea, usadioa errespetatzea eta gehiegikeriarik ez egitea posible dela erakutsi diete herritarrei. Gutxi elkartu arren kantuan eta eskean aritzeko, hamar-hamabost bat, baserritar eta herritarrengandik jasotako erantzunarekin oso pozik azaldu dira. Dantzan ere ez zuten batere gaizki egin, eta aspaldiko partez dantzara ateratako neskei txokolatea eman zieten. Ez dago txarto. /M.A.

LABUR

Sutea izan zen joan zen ostiralean Kurtzebarri magalean eta Ugaztei aldean

Eguerdiko ordu bata aldera piztu zen sua Kurtzebarri mendia magalean joan zen ostiralean. Sasiak erretzeko sua piztu omen zuen baserritarren batek, baina bat-batean haizea zakartu eta sua indartu egin zen. Orduak aurrera egin ahala sugarrak Arbe baserri ingururaino hurreratu ziren. Hala ere ez zen ezer larririk gertatu, Zubillagako suhiltzaileek eta Gipuzkoako Foru Aldundiko basozainek arratsaldeko seiak ingururako sutea mendean hartzea lortu baitzuten.

LEIBAR

arrandegia



Mitarte Kalea, 1
Tel.: 943 77 13 79
Aretxabaleta

IRIARTE

Umeen
denda
eta
lentzeria



Durana, 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETAK

OSKAR GARAJEA

Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa, A-2-4
ARETXABALETAK



MAPFRE

Aseguroak

Errekabarren, 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 5
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETAK

Zuzendaria:
**Lyonel
Arquero**

Dekorazioa:
**Soraya
Arquero**



- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
ARETXABALETAK
Tel. 943 79 29 26

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak
eta mortzilak

Durana, 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79



Miren & Zuriñe

Bitxitegia • Erlojudenda
Bitxien diseinua
Bitxien konponketa

Otalora, 4 (eliza aurrekaldean)
Tel.: 943 77 13 57
ARETXABALETAK

XAKEA

Mailaz jaitsita esango dio agur denboraldiari xake taldeak

Oraindik partida bi falta dira, baina aurkari gogorak izango dituzte aurrez aurre


MIRARI ALTUBE

Hurrengo zapatuan, otsailaren 16an, bukatuko dute xake taldekoek liga. Ez da denboraldi ona izan, eta Aretxabaletako laukotea mailaz jaitsiko da, seguru asko. Izan ere, denboraldi osoan egin ez duena partida bitan egin beharko luke, mailari eusteko.

Otsailaren 16an esango dio agur Aretxabaletako xake taldeak A mailako Euskal Ligari. Aitor Alcaidek, Fran eta Andoni Miguelek eta Esteban Romerok ez dute denboraldi ona egin, eta azken postuan geratu gura ez badute, behintzat, hurrengo partida biak irabazi beharko lituzkete. Nahiko helburu zaila, oraingo asteko aurkaria lehenengo postuan dagoen Groseko taldea da-eta.

ZORTE TXARRA

Aitor Alcaide xake taldeko kidearen esanetan, oso denboraldi gogorra izan da, "talde askok fitxaketak egin dituzte eta asko indartu dira. Gu lehengoak gara, herriko lau xake zale, eta gaitza da euren parean egotea. Bestal-



Donostiako Groseko talde indartsua izango dute aurrez aurre zapatuan.

de, zortea ere falta izan zaigu, puntuak uste barik galdu ditugu-eta". Datorren denboraldian B mailako Euskal Ligan jokatu beharko dute. "Taldea finkatu behar dugu ordurako, aurkariak ezagutu eta, agian, bi urte barru be-

rriro mailaz igotzea pentsa genezake", dio Aitorrek.

Momentuz denboraldia bukatu behar dute, eta gero, Donostiako Nazioarteko Opena izango dute Aste Santuetan, eta Euskadiko Txapelketa Pazko astean.

FUTBOLA

Bigarren mailako erregionaleko futbol taldeak indartsu dabil, eta gol ugari sartzen, gainera

Bigarren mailako erregionaleko futbol taldea lehenengo mailara igotzeko txapelketa jokatzeko ari da. Gabonen ostean hasi zen txapelketa, eta lehenengo partidua galdu egin zuen. Baina handi aurrerakoak aise irabazi ditu, gol ugari sartuta, gainera. Oraingo astean daukaten atsedendia ondo etorriko zaie jokalariei, indarrak berreskuratu eta sailkapeneko bigarren postuari eusteko.

IGERILEKUA

Kexa ugari jaso ziren erabiltzaileen aldetik, igerilekua lau kaletan banatu zelako

Kirol etxeko arduradunek igerilekua kaleetan banatzea erabaki zuten orain dela aste batzuk, igerilarien aldetik zein erantzun zegoen ikusteko. Hiruzpalau egunean baino ez zen egin proba, baina kexa ugari jaso ziren egun horietan. Hortaz, lehenetara bueltatzeko erabakia hartu dute. Hala ere, aurrerago kaleak ezartzeko aukera zabalik utzi dute arduradunek.

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Elgoibar-UDA
Preferentea.
Zapatua. 17:00. Elgoibar.
UDA-San Ignacio
Gazteen Euskal Liga.
Zapatua. 16:30. Ibarra.

PILOTA

Zurriola-Aretxabaleta
Kadeteak.
Zapatua. 16:00. Donostia.
Altza-Aretxabaleta
Bigarren mailako jubenilak.
Domeka. 11:00. Donostia.

EMAITZAK

FUTBOLA

UDA 2 Tolosa 2
Preferentea.
Antiguoko 3 UDA 2
Gazteen Euskal Liga.
UDA 5 Ordizia 1
Bigarren mailako erregionala.
San Ignacio 1 UDA 3
Bigarren mailako gazteak.
UDA 8 Billabona 0
Lehenengo mailako kadeteak.
Hernani 2 UDA 1
UDA 1 Ekintza 2
Bigarren mailako kadeteak.

PILOTA

Udaberriko Torneoa
Lazkao 22 Aretxabaleta 9
Kadeteak.
Aretxabaleta 22 Beharzana 20
Bigarren mailako gazteak.
Añorga (1) 22 Aretxab. (2) 16
Lehenengo mailako gazteak.
Aretxab. (2) 22 Beharzana 0
Aretxab. (1) 22 Txapagain 14
Seniorrak.

Gemes

Durana 40 ARETXABALETA Tel.: 943 79 99 18

edertze aretoa

TERMOESTIMULAZIOA teknika berria



Gorputzeko tratamendua:

- zelulitisaren aurkakoa
- loditasuna
- zirkulazio arazoak
- lasaigarria
- drenajea
- reafirmatzailea
- erditze ondokoa

Udaberrira begira zainketak

- ✓ Depilazio elektrikoa: patilak, bigotea, okotza
- ✓ Depilazioa argizari beroaz eta hotzaz.
- ✓ Dekolorazioa
- ✓ Behin betirako makilajea bekain eta espainetan
- ✓ Eguneko makilajea: ezkontzak, ezkongaiak...
- ✓ Azalaren garbiketa: adinaren eta zimurren aurkakoa, hidratazioa, aknea, shock (lifting-a)
- ✓ Ordezko azazkalak, natural-naturalak manikura eta aplikazioa
- ✓ Pedikura
- ✓ Dieta pertsonalizatuak
- ✓ Betileen tindaketa
- ✓ Solarium-a

ERRETRATUZHARRA

Zuri, gorri eta orlegiz jantzitako kintoak

Erretratu zahar honetan ikus dezakezen mutil koadrila izan zen -Santa Ageda mutilen ohituraren historian- Euskal Herriko ikurrinaren koloreekin jantzi zen bakararra. Argazkia zuri-beltzean azaldu arren, orduko hartan kintoek txapel gorria, praka eta alkandora zuria eta txaleko berdea eraman zuten soinean.

Ikurrinaren aldeko aldarrikapena egiteko ekitaldia izan zen ordukoa. Xabier Urzelaik, erretratuaren jabeak, ondo gogoratzen du, gainera, atrebentzia haren ondorioak. Arazo ugari izan zituzten, batez ere, Guardia Zibilarekin. Orduko kinto batzuk beldurtu ere egin ziren hiru koloretako jantziekin irteten, eta ez ziren Santa


Ageda batzen ibili. Horregatik, alboko erretratuan 1970. urtean kinto izan beharreko batzuk falta dira. Beste batzuk, ordea, gazteagoak dira. Azken horiek talde osatu ahal izateko batutakoak dira.

Goitik behera, ezkerretik hasita: Juanjo Ezkibel, Imanol Aizpurua, Joxe Errasti, Luis Idigoras, Ramon Arkauz, Felix Pagaldai, Juan Orobengoa, Xabier Urzelai, Xabier Zubizarreta, Angel Arana, Koldo Zubizarreta, Jose Mari Idigoras, Fernando Urrutia, Jose Urteaga, mutikotxoa (ezezaguna), eta, azkenik, Arantxa Bengoa (txistularia).

Argazkia: Xabier Urzelai
Informazioa: Xabier Urzelai
Urtea: 1970



OSASUN GIDA



ARETXABALETA

DENTISTAK:

■ IMANOL ARRAZOLA OTXOA

Mediku-dentista
Otalora, 18-1D. Tel: 943 79 93 55

■ ANGEL BENGEOA SAN MIGUEL

Mediku estomatologoa
Durana, 14-1. Tel: 943 79 05 57

MASAJEAK:

■ FLOREN ELORTONDO

Masajeak eta osteopatia
Basabe industrialdea, Pab D z/g
Tel: 629 77 85 84 / 943 79 46 20

■ LASAI MASAJEAK

Mirian Manteca masajista
Osteopatia kraneala: estrukturala eta funtzionala, lotura muskularrak
Aurrez lekua eskatu: 943 77 04 34

■ ZAINDUZ OSASUN ETA FITNESS ZENTRUA

Kirol eta osasun zerbitzuak:
banakako fitness programak, masajeak...
Hilargi plaza, 6. Tel: 658 75 80 12

■ EGIN FISIOTERAPIA ZENTRUA

Errehabilitazioa, masaje terapeutikoa, akupuntura, osteopatia.
Belorrieta, 6-7. Tel: 943 79 95 64

PSIKOPEDAGOGOAK:

■ LEBER KABINETE PSIKOPEDAGOGIKOA

Hezkuntza arazoetan diagnostikoa eta tratamendua
Basabe industrialdea, C3-3.
Tel: 943 79 56 98

PARAFARMAZIAK:

■ FARMA BIZI PARAFARMAZIA

Maitane Urrutia Yurrebaso farmazilaria
Loramendi, 8. Tel: 943 77 18 18

YOGA:

■ SADHANA YOGA ETA PSIKOTERAPIA

Yoga, bioenergetika eta psikoterapia
Lezama komertzial zentrua
eta Santa Kurtz, 24. Tel: 61 965 795

ESKORIATZA

FARMAZIA:

■ BOTIKA LDA. M. D. AGUIRRE PAGALDAY

Homeopatia, dermofarmazia, formula magistralak
Eduardo Gorosarri plaza. Tel: 943 71 48 28

DENTISTAK:

■ ENRIKE MAZMELA BOLINAGA

Hortz klinika
Eduardo Gorosarri, 3-1. Esk.
Tel: 943 71 47 36

ORTODONTZIAK:

■ AGUSTIN GOROSARRI BARBARIAS

Protesiko dentala: ortodontzia
Arana, 20-2.esk. Tel: 943 71 44 36

Zebarri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko otsailaren 8a / 67. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABALETAKO • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com

Hemeretzi Santa Ageda mutil ari dira kantari eta dantzari herrian

AINTZANE GARDOKI

Aurten, inoiz baino gutxiago dira, 19 Santa Ageda mutil guztira. Domekan hasi ziren kantari herrian. Santa Ageda bezperan, baserrietan eta Gatzagan izan ziren. Martitzenean, euri zaparrada gogorren azpian, Santa Agedari dantza egin zioten.

Jende ugari hurreratu zen martitzenean plazara, Santa Ageda mutilak Siziliako martiri eta santuaren omenez dantza zelan egiten zuten ikustera. Euri zaparrada handia zen, baina herriko mutilak gogotik ibili ziren. Azken hilabetean entseguetan ikasitako erakutsi zieten herritarrei.

INON BAINO GAZTEAGOAK

Iaz, San Juan bezperan, 19 mutil horiei herriko plazan makala altxatzea egokitu zitzaien. Orduantxe hartu zieten aurreko urteko kintoei txanda.

Eskoriatzako Santa Ageda mutilak beste herrietakoak baino urtebete gazteagoak dira; izan ere, oraindik betetzeko dituzte 18 urte. Azkeneko urteetan, ohiturak agintzen duen moduan, bez-



Hemeretzi Santa Ageda mutil dira aurten, inoiz baino gutxiago.



AMAGOIA LASAGABASTER

peran eta egunean irten beharrean, egun bat lehenago janzten dute txapela: "Gero eta gutxiago dira, eta egin beharreko guztia egiteko denbora ez dutela aitz-

kia hartuta", dio Maider Otamendik, dantzak erakusten ibili den kidea. Jasotzen duten diruaz euren bazkari eta afariak ordaintzen dituzte: "Santa Ageda egu-

nean, euren adineko neskei eta txistulariei eta dantzan erakusten ibili garenoi afaria ordaintzen digute", esan digu Mainerrek. Aspaldian zeresan ugari eman

dituzte kintoen gorabeherak: "Txintxo ari dira. Suziri asko bota dituzte, baina formal dabil-tza", azaldu digu Otamendik. Etzi, berriro egingo dute dantzan.

HERRITARREN HITZA / Jon Errasti

Santageda aieneka

Aldidas beltzak jantzita eta txapela toreroaren montera gisa, etxaflero-sorta eramateak ematen duen harrotasun puntutxoaz. Poltsikoan amaren diru-saria; batutakorik, gutxi. Santageda bezpera. Dagoeneko, bularrak moztu zizkieteneko aienek ere entzungarri.

Zeri egiten dio negar, baina, erromatarren torturari ala kintoei bere ohorezko parodiarekin ezarritakoari?

Gainbehera ez da urte batetik bestera gauzatu, ezpada urteetan metatu, eta ezin da urte bateko edo besteko kintomutil jakin batzuk erruduntzat

jo; baina, azken boladetakoa zerikusi txikia dauka Santagedaren ingurukoarekin. Eta garaiak nahiz baldintzak aldatu arren, jaiaren sena mudatzeko arrazoirik ez dago batere.

Koplak ez direlako ikasi, kantatu beharrean edozein bazterretan jarri eta zirkulazioa

etenaz dirua eskatzea kristoren narrua erakustea da; edozein ordutan etxafleroak jaurtitzea, neurri bako ganberrada;



"Jaiaren sena mudatzeko arrazoirik ez dago"

etxaflero-buruak, inolako ardura barik, taberna, atari, zakarrontzi edo kontainerretan jaurtitzea, gainontzekoenganako eta guztion ondasunen-ganako errespetu falta demasa.

Plazan dantzatzeko dena, parodia lotsagabea; janzkeran erakutsitako zabarkeria, inauteri

mozorroa beharrezko txukuntasuna baino; auzo eta baserri batzuetan -gertuenetan- batzea eta urrutienetakoetan jota-pasa

egitea, alferkeria hutsa...

Hauek kontuok zaharrak direla? Bale, ados, baina, sarri, neurritz gainezka egiten duenean baino ez dugu erreparatzen egoeraren degradazioan, eta kintoena horietako kasu bat da.

Aspaldi hasiak beharko genukeen zerbaitetan, eta ezer zehatzik egin ez izana ez da aurrerantzean ere ezer ez egiteko aitzakia.

Are gehiago, nonbaitetik heldu beharko zaio jaiak iraungo badu; bestela, berez usteldu eta galduko da.

Ea aurtengo jardunak aurreko batzuk ez bezala norabide hori markatzen duen.

LABUR

Itzalaldia eragin zuen zutabe elektriko batek

Eskoriatza eta Gatzaga argi barik egon ziren, bi orduz, zutabe elektriko bat jausi zelako.

Alza lantokiaren atzealdean egiten ari diren lanetan gertatu zen ezbeharra. Ingu-ruan lurra jasotzen ari zen makina batek zutabe elektriko-a jo eta bota egin zuen.

Iberdrolako langileek ordu erdi inguru eman zuten matxura konpontzeko, eta argindarra ordu pare bat gero-ago itzuli zen Eskoriatzara eta Gatzagara.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea.....	943 71 44 07
Udal bulegoak.....	943 71 45 32
Udaltzaingoa.....	943 71 44 07
Euskaltegia.....	943 79 21 68
Kultura etxea.....	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea.....	943 71 31 36
Kirol etxea.....	943 71 53 28
Liburutegia.....	943 71 31 35
Luis Eceiza.....	943 71 53 56
Jose Arana-Almen Ikastola.....	943 71 44 86
Almen.....	943 71 49 07
Museo Eskola.....	943 71 54 53
Axtroki.....	943 71 40 77
HUHEZI.....	943 71 41 57
Osakidetza.....	943 71 44 52
Telesko.....	943 71 49 17
Taxiak.....	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospital. (Arrasate).....	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara).....	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate).....	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati).....	943 79 28 00
RENFE (Zumarraga).....	943 72 15 15
RENFE9 (Gasteiz).....	945 23 20 30
PESA (Arrasate).....	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate).....	943 77 10 43
SOS Deliak.....	112

OHARRAK

ARATUSTEAK

Zapatuan, 18:00etatik aurrera, trikitilariak; 23:00etan, Splash txarangak kaleak animatuko ditu. Martitzenean goizean hasiko da jai. Arratsalde, Kukumarroen irteerarekin "Herri Inauteria" izango da zazpietatik aurrera.

ESKI IRTEERA

16an eta 17an, Luz Ardidenera. Autobusa 05:00etan irtengo da. Prezioa: 75 euro. Izena emateko mugaeguna: hilaren 14a (Namasten).

HAMABOSTALDI KULTURALA

Ezeizan ekintza ugari izango da aste osoan.

AXTROKIREN AGENDA

DINAMIZATZAILE-KUDEATZAILE LANPOSTUA

Langilea behar du Axtrokirek egun erdiz aritzeko. Curriculum Intxaurtxueta 9-10. ean edo ludotekan entregatu, otsailaren 15a baino lehenago.

GIZARTEA

ESOP Euskadin egokitzeko jardunaldiak egin dira HUHEZIN

AINTZANE GARDOKI

Zelan egokitu ESOP Euskadin goiburuarekin egin dira jardunaldiak Eskoriatzako Fakultatean. Praktiker-ek, HUHEZIKo ikerlegiak, duela urtebete izan zuten ESOP figura juridikoaren berri. Ameriketako Estatu Batuetan sortu zen ESOP, 70eko hamarkadan. Langileek enpresaren akzioetan parte hartzeko formula da ESOP.

Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomia Sailak ere interesa agertu zuen ESOPen inguruan. Praktiker-ek ikerketa-proiektua aurkeztu zion Joseba Azkarragak zuzentzen duen sailari, eta hark onartu egin zuen. Proiektuak ESOP figura aztertu gura zuen, baita EAEn lege aldetik egokitu eta aplikatzeko aukera ere.

Ameriketako Estatu Batue-

"Langileek enpresaren akzioetan parte hartzeko formula da ESOP"

tan ia 10.000 ESOP-enpresa ari dira lanean, eta arrakasta horren giltzarriak Euskal Autonomia Erkidegora zelan ekarri aztertu dute jardunaldietan. Jardunaldiak aurkezteko, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburu Joseba Azkarraga eta MUKo errektore Inaxio Oliveri izan ziren, besteak beste. Jeff Gates eta David P. Ellerman adituak izan ziren jardunaldiak gidatzen.



Eskoriatza Kirol Elkarteak jantzi eta babesle berriak aurkeztu ditu asteburuan

Katalunia aldean aurkitu du babesle Eskoriatza Kirol Elkarteak; izan ere, urtebeteko kontratua sinatu du elkarteak ISCAR enpresarekin. Guztira saskibaloiko nesken hiru taldeek eta areto futboleko bi taldeek eramango dituzte jantzi berriak, guztira 80 kirolari. Orain arte moduan, zuria eta berdea dira nagusi.



AINTZANE GARDOKI

Jeff Gates eta David P. Ellermanek gidatu zituzten jardunaldiak



ALMEN ikastolak atek ireki zituen asteburuan, interesa zutenendako

Zapatuan -lehenengo aldiz-, ikastolak atek ireki zituen, barrutik ikusi gura zuten ikasle eta gurasoendako ireki ere. Jende asko hurreratu zen, eta oso balorazio ona egin dute bai ikastolak berak bai gerturatutakoek ere. Ikastola barrutik ikusteak sorpresa bat baino gehiago eragin zuen, batez ere, ikasle ohien artean.

ESTETIKA ESPEZIALIZATUTAKO ZENTRUA



EDURNE

Aranburuzabala, 42
Tel.: 943 71 51 54
ESKORIATZA

TOKI
ALAI
TABERNA

Karajiloetan
espezializatua

Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA

LENIZ, C.B. KONPONKETAK

LENIZ
ESKORIATZA

TXAPA, MARGOA
eta MEKANIKA

Aingeru Ibiltokia, z/g. • Tfnoa.: 943 71 50 61

Debekua bada nagusi, oraindik ere txerri guztiei heltzen zaie San Martin eguna

AINTZANE GARDOKI

Nahiz eta berez debekatuta egon, Gatzagan, beste herri askotan moduan, ez da galdu txerria etxean hiltzeko ohitura. 3.000 txerri baino gehiago hil dituen pertsonarekin izan gara astean. Beste baserri baten ere, garai honetako gorabeherak kontatu dizkigute.

Azaroan hasi eta urtarril bitartera arte ei da txerria hiltzeko garai aproposena. Gainera, kome ni da ilbehera izatea. Gatzagan, orain, 30 txerri inguru hiltzen dira. "Ni orain dela 30 urte hasi nintzen lan honetan. Orduan, lau aldiz gehiago hiltzen ziren. Nik 3.000 baino gehiago hil ditut honezkero", adierazi digu garai honetan baserri baten ibili behar izaten duen arabarrak.

Bestalde, geroago eta gatzagar gutxiagok hazten dute txerria baserrian. Gauzak asko aldatu dira: "Ni, umetan, arkan sartuta nago behin baino gehiagotan. Askotan trenbidera alde egin behar izaten nuen, txerriaren kurrixkak ez entzuteko. Geroago, berriz, lehenengo ilaran ego tea tokatu izan zait beti. Baina zeharo aldatu dira gauzak. Lehen ez zegoen izozkailurik, eguna joan eguna etorri jan behar izaten zen txerriak. Eta orain, gura izanez gero, urte osoan dauzkagu odolosteak edo solomoa".

Gizonak txerriari heldu eta emakumeak txerria gobernatu. Hori horrela izan ei da beti, ez da aldatu. "Txerriari heltzeko indarra behar da. Koadrilatxoak elkar tzea beharrezkoa da, eta ia beti gizonetakoak izan dira lan horretan. Behin baino gehiagotan, txerriak, labana ganean duela, alde egin izan du inguruetako baserrietatik. Eta hemen, nik ikusi ez badut ere, esaten zen Salterainek, hark bakarrik, txerria gurdian lotu eta inoren laguntza barik hiltzen zuela txerria herrian", diosku Maritxuk. "Hesteak garbitzea ez da lan ona, baina gurean ahizpak eta biok zatitzen dugu txerria, eta hori ere lan gogorra da. Lan handia dauka txerria gobernatzeak, baina gurean koadrila handia elkartzen gara urtean barrena, eta asko laguntzen digu mahaia jartzeko orduan txerriaren txorixoak eta beste izateak".


Azkenik, galdetu diogu ea aurrerantzean atzetik datozenak helduko dioten lan horri, eta Maritxuk ahoari alde batera eragin dio: "Ez dakit, denbora ere behar da, eta, gaur egun, jendea presaka bizi da. Gustatu, mahaian jarriz gero, denoi gustatzen zaigu txerriak, baina... Hori ere, beste ohitura asko bezala, galdu egingo da. Pena ematen dit. Ezin zaie ohitura guztiei eutsi, baina guzti-guztiak galtzen uztea ere pena da".



Kuadrilatxoak behar da txerriari eusteko.



Hil ondoren iratzeaz erretzen da txerria leku askotan.



Inguruetako makinatxo bat ganbaratan lehortzen dira txorixoak.

"Azkeneko 30 urteotan, hemen inguruan, 3.000 txerri baino gehiago hiltzea tokatu zait"

"Umetan, arka barruan sartuta nago, txerriaren kurrixkak ez entzuteko"

"Gatzagan bazegoen txerria gurdian lotu eta bakar bakarrik txerria dominatzen zuenik"

"Ahizpak eta biok zatitzen dugu txerria, hori da agian lanik gogorrena"

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada giro!

ESKORIATZA **Bazkariak eta afariak**

MENDIOLA **ERRETEGIA**

Tfno 714345

Mendiola auzoa
ESKORATZA
943 71 43 45
Astelehenetan itxita

JOSU
taberna harategia

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1
Tel.. 943 77 03 08

LAGUNAK
DASTALEKU

Tel. 943714063

Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8. ESKORIATZA

Taberna Berri

Durana 26, ARETXABALETA. 943 79 20 67

URBALTZ
TABERNA

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 943 79 79 79
ARETXABALETA

ZARAIA
TABERNA

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan
MANTEKA ANAIK
Araba Ibilbidea 20. Tel.: 943 79 88 95. Aretxabaleta

HIRUSTA JATETXEA
Zatoz gure sukaldean ezagutzera

Ilargi plaza 4. Tel. :; 943 79 06 57

Baster-Alde jatetxea

Sasoiko jakiak giro onenean

Galartza auzoa, Aretxabaleta
943 79 24 58

ARTANO akaitegia

Gosariak goizeko 7:00etatik aurrera!

Herriko plaza 3. Tel.: 943 79 62 75 ARETXABALETA

GUREA
Eguneko menuak • Plater konbinatuak
TABERNA

Durana kalea. Telefonoa 943 79 20 64

ARLUTZ
TABERNA

Gustuko musika

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

EzkuTU
TABERNA

Zatoz gure musikaz gozatzera

Mitarte 9 ARETXABALETA Tel: 943 79 92 01

OTZETA
taberna jatetxea

Aranburuzabala 7
ESKORIATZA. 943 71 51 90

BASABE
Menuak eta afariak

Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 79 91 84

Aretz
taberna

ORDUTEGIA:
Astelehenetik ostiralera
9:00etatik zabalik
Astebukaeretan
11:00etatik aurrera

Markole, 5 behea
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA



RENAULT

AVANTIME

Coupé kontzeptu berria, gidatzea eta bidaiatzea plazer hutsa izan daitezen.

ZATOZ EZAGUTZERA
ARRASATEKO MECARA



MECA

Erakusketa eta tailerra: Amillaga, 5. **BERGARA**. Tel.: 943 76 40 68

Erakusketa eta tailerra: San Andres auzoa. **ARRASATE**. Tel.: 943 71 24 72

